

ADI! FILMAK EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzak apirilean aurkeztu zuen *Adi! Filmak euskaraz* ekimena, euskara ikus-entzunezko aisialdian sustatzeko. Horri esker, urtean 24 film ikusi ahal izango dira euskaraz zinema-aretoetan (orain arte baino bi aldiz gehiago), eta euskarazko filmen eskaintza handitzea ere aurreikusten da plataforman digitaletan.



ADI! PELÍCULAS EN EUSKERA

El Gobierno Vasco presentó en abril la iniciativa *Adi! Filmak euskaraz* para impulsar el uso del euskera en el ocio audiovisual. Gracias a esta iniciativa, podrán verse 24 películas al año en euskera en las salas de cine —el doble que hasta ahora—, y también se prevé ampliar la oferta de películas en euskera en las plataformas digitales.

ELKARGOEN HELBURUAK

Urtero, *Elkargoak Euskaraz* ekimenean parte hartzen duten elkargoek ekitaldi bakoitzean egingo dituzten hobekuntzak zehaztu egiten dituzte. Normalean urtero 3-4 jartzen dituzte.

Helburuen artean daude, besteak beste, Bizkaiko Industria Ingeniariei Elkargoan webgune osoa euskaratzea, Bizkaiko Abokatuen Elkargoan kuoten mezua elebiduna jartzea, Bizkaiko Haginlarien Elkargoan webguneko eduki aldakorren izenburuak euskaraz eskaintzea, Euskadiko Bideetako Ingeniariei Elkargoan Worden euskarazko bertsioa erabiltzea, Gizarte Hezitzaileen Elkargoan kanpoko errotulazioa euskaraz jartzea.

Horiek adibide batzuk baino ez dira. Animo elkargo guztiei helburuak betetzen jarraitzeko, eta gogoratu: Elkargoak Euskaraz egitasmoaren laguntza beti izango duzuela eskura.

ADIMEN ARTIFIZIALA EUSKARAZ

Adimen Artifiziala euskaraz ere erabil dezakegu gauza askotarako: galderak egin, ideiak bilatu, testuak antolatu, zalantzak argitu edo euskaraz idazten laguntzeko. Tresna baliagarria izan daiteke. Probatu duzu jada nola dabilen euskaraz?

Hala ere, kontuan izan behar dugu oraindik ez duela euskara bikain menperatzen eta akatsak egin ditzakeela. Horregatik, laguntza gisa erabili behar dugu, zentzuz, gure ordez pentsatzeko erabili gabe.

OBJETIVOS DE LOS COLEGIOS

Todos los años, los colegios que participan en la iniciativa *Elkargoak Euskaraz* detallan los objetivos que van a impulsar. Normalmente, cada colegio establece unos 3-4 objetivos cada año.

Entre los objetivos se incluyen, entre otros, la traducción completa del sitio web en el Colegio de Ingenieros Industriales de Bizkaia; poner las cuotas bilingües en el Colegio de Abogados de Bizkaia; los títulos de los contenidos variables de la web en euskera en el Colegio de Odontólogos de Bizkaia; el uso de la versión en euskera de Word en el Colegio de Ingenieros de Caminos del País Vasco; y la rotulación exterior en euskera en el Colegio de Educadoras y Educadores Sociales.

Estos son solo algunos ejemplos de los objetivos fijados en los distintos colegios. Ánimo a todos ellos para seguir avanzando en su cumplimiento, con el apoyo de la iniciativa *Elkargoak Euskaraz*.

IA-INTELIGENCIA ARTIFICIAL en EUSKERA

La Inteligencia Artificial también puede utilizarse en euskera para muchas funciones: preguntas, buscar ideas, organizar textos, dudas o ayuda al escribir en euskera. Puede ser una herramienta útil. ¿Has probado ya cómo funciona en euskera?

Sin embargo, debemos tener en cuenta que todavía no domina el euskera a la perfección y puede cometer errores. Por ello, debe utilizarse como herramienta de apoyo, de forma responsable y sin sustituir nuestro propio criterio.